

AZAROAK 25

EMAKUMEAREKIKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Karibeko eta Hegoamerikako 1. Topaketa feministak 1981ean Bogotan (Colombia) burutu ziren eta horietan azaroaren 25a Emakumearekiko Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna izendatu zen. Topaketa hauetan gizartearen arlo guztietan emakumeek jasaten duten indarkeria salatu zen: tratatu txarrak, hilketak, bortxaketak, eraso sexualak, eta aurkako indarkeria mota guztiak, emakume preso politikoek jasaten duten tortura eta abusuak barne.

Euskal Herrian azken hilabete hauek oso mingarriak izan dira bortizkeriaren ondorioz 9 emakume hil direlako. Biolentzia horren oinarria gizon eta emakumeen sozializazio hierarkizatuan oinarrituta dago.

Historiaren zehar, gizonek botere sozial gehienak monopolizatu dituzte, emakumeak pribatu arloan marjinalizatu. Luzaroan zaintzaile eta sortzaile baliatuta egon gara, ez dugu aukerarik izan arlo publikoan agertzeko eta gure lana isilarazita eta gutxituta izan da. Errealitate hori emakumeen lana eta ahaleginari esker aldatzear dago.

Egia esan gaurko emakume eta gizon berdintasunaren legeak eta emakumearekiko indarkeriaren kontrako legeak baldin badaudela, baina egia da bakarrik legeekin errealitate mingarria hori ez dela aldatuko. Legeek ez dituzte ez sentimenduak ezta baloreak ere aldatzen. Hori kontuan hartuz, emakumearekiko kontrako bortizkeria arazo sozial estruktural moduan ulertu behar da non gure gizartearen sektore eta pertsona guztietako konpromiso bat exijitzen duen, emakumearekiko kontrako edozein mespretxu, zapalkuntza eta bortizkeria ukituz eta gaitzetsuz.

STEE-EILASetik, Irakaskuntzako sindikatua denez, egoera hori gainditzeko hezkuntzak ezinbesteko papera jotzen duela badakigu. Hori dela eta, estereotipoak bazter ditzaten baloreen hezkuntza premiazkoa dela baieztatzen dugu. Hezkuntza horrek mutilen eta nesken sozializazio eredu ezberdina lagundu gaitzan non gizonezkoen balorazioa inportanteena jokatzen den eta neskekiko dituzten jarrera errespetugabeak, iraingarriak eta baztertzailak normalizat hartzen dituzten, nesken eta mutilen arteko harreman hierarkiakoa iraunaraziz.

Egoera hori aldatzeko eta gainditzeko, **STEE-EILAS**en hezkidetzaren alde ari gara, arazoa konpontzeko baliabide integral eta baliotsua izanik, emakumeek kulturari eta historiari egindako ekarpenak baloratu eta agerian jartzen dituelako, gizakia aipatzen berariaz maskulinoa besterik erabiltzen ez duen hizkuntza berraztertzen duelako eta pertsonen garapen integrala bultzatzen duelako, pobretzen eta mugatzen gaituzten estereotipo eta eginkizunak gabe.

Eta hasieratik honaino **STEE-EILAS**ek martxan jarri duen apustua hori da gure gizartetik ideologia patriarkala baztertzeko eta laguntzeko taldeko eta pertsonaleko baloreak benetako eraldaketa ziurta dadin.

STEE-EILAS
EMAKUMNEAREN IDAZKARITZA